

INPRIMATEGIA EUSKALDUNON MUNDUAN

Esan ohi denez, VI. mendean azaldu omen ziren Europan Txinatik ekarririk, zurezko oholtxoen bidez egindako lehen liburua inprimatuak, baina XV. mendera arte ez zuen oihartzun handirik lortu europarren artean. 1441. urtean, Maguntzia hirian Gutenberg alemaniarrek inprimategia asmatu zuen eta 1540an Lorentzo Costerrek bultzada handia eman zion sistema higikorra asmatzean. Urte hartatik aurrera inprimatzaileak Europa osoan zehar ugaltu eta zabaldu ziren. Entzutetsuenak: Pedro Shoëffer, S. Subiaco, Adolf Rusch, Nikolas Jensen, Giller-mo Caxton eta abar. Ameriketako lehen inprimategia Mexikon zabaldu zen 1533. urtean.

Euskal Herrian inprimategia oso goiztiarra izan zen eta lehena Iruñean 1492an ireki zuten. Euskal Herria herri eta kulturaren bidegurutzea izan da beti, eta hori dela eta, Europan izan diren mugimenduak, asmakizunak, berrikuntzak... pittaka pittaka iritsi izan dira gure lurretara. Horixe bera gertatu zen moldiztegiarekin. Hasiera-hasieratik oso harrera ona egin zitzaion gure artean, eta orduz geroztik hamaika inprimategi zabaldu dira euskal lurralde guztietan.

1.- BROKARIE ETA IRUÑEKO INPRIMATEGIA.

Arestian esan bezala, Gutenberg-ek 1441. urtean asmatu zuen inprimategia. Berrogeita hamaika urte beranduago, hau

da, 1492an, Arnaldo Gillermo Brokarie izeneko inprimatzaileak Euskal Herrian eta penintsula osoan lehena izan zen moldiztegia ireki zuen orduan erresuma askea zen Nafarroako hiriburuan, Iruñean. Urte berean kaleratu zuen Brokariek Euskal Herrian inprimaturiko lehen liburua, Joan Frantzisko Tornamira tuterarrak medikuntzari buruz idatzitakoa.

Brokarie bere garaiko inprimatzailearik onenetakoa izan zen. Bere sorlekuaz ez dakigu gauza handirik; Batzuek diotenez, inprimategiaren sehaska zen Maguntzia hirikoa omen zen, beste batzuek, berriz, Espainiako Alcalakoa zela defendatzen dute. Edonola ere, bere liburuetan erabilitako ikur grafikoek Alemaniako Eskolan ikasia zela adierazten digute, inolako zantzaririk gabe.

Brokarie 1492. urtean finkatu zen Iruñean eta bertan Maria Zozaiarekin ezkondu ondoren, hiru seme-alaba eduki zituzten. Iruñeko bere moldiztegiaren inkunabile aunitz argitaratu zituzten, beraien artean *S. Bonaventurae doctoris eximi dioeta salutis* izeneko nabarmendu daiteke.

Agramontar eta beamontarren arteko borrokak zirela eta, Brokariek Iruñetik alde egitea erabaki zuen eta inprimategia Logroñora eraman. Orduz geroztik, eta 1523ra arte, hau da, hil zen urtera arte, Logroñon inprimatzen jarraitu zuen.

2.- MIGEL EGIA ETA ADRIAN ANVERS INPRIMATZAILEAK.

1838an, lehen karlistadaren garaian, Berastegiko eskribaua zen Jose Antonio Muñagorrik bere hertsoetan azaldu eta zabaldu zuen bezala, *gerrak ez dakar onik*, eta Nafarroako erresuman, bandoen artean pizturiko zorigaitzoko gerrak, beste kalte askoren artean, Iruñeko inprimategiaren desagertzea ekarri zuen. 1546an, Brokarieren laguntzaile eta koinatu zen Migel Egia lizarratarrak Euskal Herriko bigarren inprimategia zabaldu zuen Iruñean. Egiak inprimaturiko lehen liburua Rodriguez Fernandezek *Vocabularium ecclesiasticum* izan zen. Tamalez, hiru liburu baino ez zuen inprimatu.

Adrian Anversek ordezkatu zuen Egia Iruñeko inprimategi berrian eta berari zor diogu garai hartan argitaratu zuten liburu mordoa, hogeita hamar bat gutxi gora-behera. Berekin inprimatu zituzten 1561ean Zangozan eta 1565ean Tuteran eginiko gorteetako lege-liburuxkak. 1583an Anversekin ikasia eta Iruñeko bizilaguna zen Pedro Borgoña soldaduak aurrekoaren moldiztegia erosi zuen eta Nafarroako Erret Kontseiluaren baimenaz zenbait liburu inprimatu. Gaur egun oraindik ezagutzen ez dugun arrazoia dela eta, Erret Kontseiluak urte bereko agorrilaren 23an liburuak inprimatzen jarraitzea debekatu zion.

3.- EUSKARAZKO LIBURUEN INPRIMAKETA.

Aurretik baziren zenbait esaldi edo paragrafo argitaraturik latinez edo erromantzez inprimaturiko liburuetan. Hala nola, 1609an Matias Mares inprimatzailearen alarguntsak erdaraz argitaraturiko liburu batean tartekaturik azaltzen diren euskarazko bertsoak. Alabaina, euskaraz inprimaturiko lehen liburua Bernart Etxeparek idatzitako *Linguae vasconum primitiae* 1545. urtean plazaratu zen. Etxepare berak ongi zekien hori eta horregatik *Kontrapas* izeneko bertsoan honela idatzi zuen:

“Oraidano egon babiz
inprimatu gaberik,
hi engoitik ebitliren
mundu guztetarik”

Baina Etxepareren liburua ez zen Euskal Herrian inprimatu, Bordele hurbileko inprimategian baizik. Etxepareren mendekidea izan zen Joanes Leizarraga artzain protestantearen liburuak ere Euskal Herriatik kanpo inprimatu ziren, Frantziako Rotxelan. XVIII. mendean argitaratu ziren euskarazko liburu gehienek ere kanpoko moldiztegietan ikusi zuten lehen argia, gehien-gehienek Bordeleko inprimategian, Sarako Eskolako idazleena kasu. Arnaut Oihenart eta Silvain Pouvreurenak Parisko inprimategi batean inprimatu zituzten, Bernardo Gaztelu-

zarren liburua Pauekoan, eta Orthezekoan Ioan Tartasen *Onsa bilceko bidia* ospetsua.

1621. urtean Joan Beriain nafarrak idatzirik *Tratado de como se ha de oyr misa* meza-liburu elebiduna Iruñeko moldiztegiaren inprimatu zuten, baita *Doctrina Christiana* izeneko bere bigarren liburua ere. 1656an Martin Otxoa Kapanagaren *Exposición breve de la doctrina cristiana* deituriko liburuxka elebiduna argitaratu zuten Bilboko moldiztegiaren eta 1684an Baionako-ana Aita Arranbillagaren *Jesu Christoren imitationea* izenekoak.

Orduz geroztik, euskarazko liburu gehienek Euskal Herriko inprimategietan ikusi dute argia. XVIII. mendean gehien erabili izan zituzten moldiztegiak Donostia, Bergara, Baiona, Iruñea, Tolosa eta Bilbokoak izan ziren. Hala eta guztiz ere, euskarazko liburu aunitz kanpoko moldiztegiaren, Bordelen, Pauen, Akitaniako Tolosan, Madrilan, Parisen eta Salamancan inprimatu zituzten.

4.- EUSKAL HERRIKO BESTE INPRIMATEGIAK.

1577an Salamancan ikasia zen Matias Mares-ek Bizkaiko lehen inprimategia zabaldu zuen eta bertan aritu zen inprimatze-lanetan 1587. urtera arte. Argitaratu zuen lehen liburua Jeronimo Osorio portugaldarraren *De nobilitate* izenekoak izan zen eta latinez idatzirik zegoen. Handik gutxira santuen bizitzari buruzko beste liburu bat inprimatu zuen. 1592an Nafarroara abiatu zen. Hasieran inprimategia Iruñean zabaldu bazuen ere, gero hura itxi eta bigarren bat zabaldu zuen Iratxen. 1609. urte inguruan hil zen, baina bere alarguntsak liburuak inprimatzen jarraitu zuen; bere senarra hil zen urte berean, euskarazko bertso zenbait zituen arestian aipaturiko erdal liburua argitaratuz.

1585ean Nafarroan inprimatzea galarazirik zeukan Pedro Borgoñak debozionario itiki bat inprimatu zuen Gipuzkoan. 1572an Porralis izeneko inprimatzaileak inprimategi bat zabaldu zuen Tuteran. 1647rako Olibako monasterioan bazeukaten inprimategi bat, 1606rako Fiterokoan eta 1608rako Iratxekoan. Azkenekoan, eta zabaldu zen urte berean, Aita Antonio Alvara-

doren *Arte de bien vivir y guía de los caminos del cielo* izenburuko liburua kaleratu zuten.

Ordutik aurrera, inprimategiak euskal geografia osoan ugartu ziren. Herri tiki askotan moldiztegiak zabaldu zituzten eta moldiztegi tiki horietan, sarritan, kalitate handiko liburuak inprimatu ziren. Zabaltze horrekin batera, tipografoan oso aurre-rapen handiak izan ziren. 1642an, Baionan zabaldu zuten Iparalde osoko lehen inprimategia eta Donostian 1672an, Martin Huarteren zuzendaritzapean. Azken horretan, 1672 eta 1700 urteen artean, hamalau bat liburu argitaratu zituzten. Huartek Gipuzkoako Foru Aldundiari aurkezturiko idazki batean irakur daitekeenez, bere inprimategirako behar izan zituen materialak, garai hartan inprimatzearen ardatza eta bihotza zen Anberes hiritik ekarraziti zituen.

Handik zenbait urtetara Erriberriko inprimategia zabaldu zuten, eta bertan Aita Frantzisko Garai ospetsuaren idazlanak argitaratu zituzten. Jakin badakigu, 1715erako Bisan aski ongi ezagutzen zutela tipografia, urte hartan Frantzisko Pikart-en zuzendaritzapean, Aita Aleson-en *Los anales del Reyno de Navarra* izeneko idazlan oparoaren lehen liburukia inprimatu baitzuten. Zenbait urte beranduago, 1722an hain zuzen, lehen inprimategia zabaldu zuten Gasteizen. Inprimatzaile berrien izenak azaldu ziren, Brokarierekin hasitako zerrenda etengabeki luzatuz: Egia, Anvers, Borgofña, Mares, Porrallis, Huarte, Plantin, Didot, Pikart, Ibarra, Rivadeneyra, Baroja,.... Inprimategiak nonahi zabaldu zituzten eta liburu inprimatuak gure herriko bazter guzietara hedatu ziren.

Gaur egun, liburu bat inprimatzea munduko gauzarik errazena eta arruntena dela iruditzen zaigunean, zilegi iruditzen zait begirada gure hastapen apal haietarantz itzultzea, gaur inprimatzeak ezagutzen duen zabalkunde handiak lehen urrats xume haietan oinarri finkoa duelakoan.

Joseba Aurkenerena
(Urruña)